Ondo Bizi Arte Egonaldia II.

II Residencia artística del buen vivir

-Karrantza 2018-

Ondo Bizi Arte Egonaldia II.

II Residencia artística del buen vivir

-Karrantza 2018-

Pasa den urtean -2017an- I. Ondo Bizi Arte Egonaldia sortu genuen[1], Karrantzako ardien eta artzaintzaren munduaren egoerari buruzko hausnarketa, eztabaida eta hedakuntza espazioa Artearen mundutik zabaltzeko; horretarako, espazio eta uneak eskaintzen ditugu Haraneko artzainak artistekin batera bizi daitezen. Baserri-eredu berriak bizipen sortzailetik esperimentatuz, bizikidetza, autonomia eta autogestioa oinarritzat hartuta; gizakien, naturaren eta bioaniztasunaren arteko harremanez hausnartuz. Kontzeptu hauek gidatuta: zaintzea, sortzea eta parte hartzea.

Alde horretatik, ondo bizitzearen filosofia bultzatu nahi dugu. Apustu politiko horrek ongi komuna eta gizarte-erantzukizuna bilatzen ditu, ama naturarekin duten harremanetatik abiatuta. Bizitzan guztia elkarri konektatuta dagoela, interdependentea dela eta elkarrekin erlazionatuta dagoela ulertuta. Era horretan, ikuspegi holistikotik begiratuz, artea lagungarria da ulertzeko ez garela izaki indibidualak, izaki kolektiboak baizik.

1 Esperientzia hau hemen ikus dezakezue: vimeo.com/248322772

El pasado año 2017, creamos la I Residencia Artística del Buen Vivir[1], con el objetivo de ampliar el espacio de reflexión, debate y difusión sobre la situación del mundo ovino y pastoril en Carranza desde el Arte; ofreciendo espacios y momentos para que los pastores y pastoras del Valle convivan con artistas. Experimentando nuevos modelos de caserío desde la experiencia creativa, basados en la convivencia, la autonomía y la autogestión; reflexionando sobre las relaciones entre los seres humanos, la naturaleza y la biodiversidad. Bajo los conceptos: preservar, crear y participar.

En este sentido, queremos impulsar la filosofía del buen vivir. Esta apuesta política busca el bien común y la responsabilidad social a partir de su relación con la madre naturaleza. Entendiendo que en la vida está todo interconectado, es interdependiente y esta interrelacionado. De tal modo, el arte, desde la perspectiva holística, facilita la comprensión de que no somos seres individuales, sino colectivos.

1 Podéis visualizar parte de esta experiencia: vimeo.com/248322772

2018. urte honetan, Ondo Bizi Arte Egonaldiaren bigarren edizioa apirilaren 3tik 9ra egin zen. Bigarren edizio honetarako, antolatzaileek beka-deialdi bat proposatu zuten, nobedade moduan, eta jasotako 19 proposamenen artean Bruno Delgado Ramok (Sevilla) eta Onintza Etxebestek (Oiartzun) aurkeztutakoak aukeratu ziren. Beste alde batetik, Mutur Beltz Elkarteak erabaki zuen Itxaso Díaz (Gallarta) gonbidatutako artista izatea[2].

Deialdiaren epaimahaikideak honako hauek izan ziren: Luis Manuel Peña Cerro (Karrantzakoa. Etniker-Bizkaia taldeko partaidea, Labayru Fundazioaren Etnografia Sailean lan egiten du; Pedro Salgado (Karrantzakoa. Artista eta okina); Arantza Lauzirika (Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko Dekanoa); Kamilo Torres (Artista eta ikertzailea); Jose Jurado (Artista eta Rural Contemporánea erakundearen partaidea) eta Mutur Beltz, Karrantzako mutur beltz ardia sustatzeko elkarte agroekologiko, artistiko eta kulturala.

Egonaldi hau bereizten duen Ondo Bizitzearen ikuspegia azpimarratuz, artisten harrera Pallotti Bainu-etxe historikoan izan zen; bertan, hango ur mineral eta sendagarrietan bainatzeko aukeraz gozatzeaz gain, lanastea antolatu genuen. Bizikidetzako egonaldi horretan, artistek dieta osasungarriaz gozatu zuten, batez ere bertoko produktuez osatua (Vista Alegre Baserriko esnekiak eta gaztak; Matxako eta

2 Deialdiaren oinarriak euskaraz:
www.eremuak.net/sites/default/files/bases_ondobizi_2018_eus_0.pdf
Deialdiaren oinarriak gaztelaniaz:
www.eremuak.net/sites/default/files/bases_ondobizi_2018_es.pdf
Deialdiari buruzko erabakia euskaraz eta gaztelaniaz:
www.eremuak.net/sites/default/files/resolucion_ondobizi18.pdf

Este año 2018, la segunda edición la Residencia Artística del Buen Vivir, tuvo lugar del 3 al 9 de abril de 2018. Dando así continuidad al trabajo desarrollado con anterioridad. Para esta segunda edición, la organización propuso, como novedad, una convocatoria de becas y entre las 19 propuestas recibidas fueron seleccionados los proyectos de Bruno Delgado Ramo (Sevilla) y Onintza Etxebeste (Oiartzun). Por otro lado, la Asociación Mutur Beltz decidió invitar en calidad de artista invitada a Itxaso Díaz (Gallarta). [2]

El Jurado de la convocatoria estuvo compuesto por: Luis Manuel Peña Cerro (Local de Karrantza. Miembro del grupo Etniker-Bizkaia, trabaja en el Departamento de Etnografía en Labayru Fundazioa); Pedro Salgado (Local de Karrantza. Artista y panadero); Arantza Lauzirika (Decana de la Facultad de Bellas Artes del País Vasco); Kamilo Torres (Artista e investigador); Jose Jurado (Artista y miembro de la organización Rural Contemporánea) y Mutur Beltz, asociación agroecológica, artística y cultural para promover la oveja carranzana cara negra.

Incidiendo en el Buen Vivir que caracteriza esta residencia, la recepción de los artistas tuvo lugar en el histórico Balneario Casa Pallotti, donde además de disfrutar de un baño en sus aguas mineromedicinales, organizamos la semana de trabajo. En esta convivencia, los artistas disfrutaron de una dieta saludable, en su mayoría de productos locales; (Lacteos y quesos de Vista Alegre

2 Bases de la convocatoría en euskera:
www.eremuak.net/sites/default/files/bases_ondobizi_2018_eus_0.pdf
Bases de la convocatoría en castellano:
www.eremuak.net/sites/default/files/bases_ondobizi_2018_es.pdf
Resolución de la convocatoría en euskera y castellano:
www.eremuak.net/sites/default/files/resolucion_ondobizi18.pdf

Magora bakeryko ogia eta gozokiak; Lomberako okela eta hestebeteak, Karrantzako eztia). Halaber, bertoko establezimendu batzuetan bazkaldu zuten (Dendaberri Taberna, Ibaiondo Taberna, Bar El Cruce, Casa Felisa, Bar Urbieta, eta abar.). Euren ostatua Gure Naia landetxea izan zen, Ahedo auzoan. Eta, bukatzeko, II. Ondo Bizi Arte Jardunaldi hau biribiltzeko, bazkari bat egin genuen ekimenean parte hartu zuten artistekin eta Avascane Elkarteko artzainekin, Karrantzako Casa Garras Jatetxean. Txema Llamosas sukaldariak zenbait plater prestatu zituen ardi eta bildotsaren okelaz eta Karrantzako ardi-gaztaz: Avascanek ekarritako bertoko produktuak. Horren bidez, Enkarterrietako ondarea hedatu eta berriztatu genuen. Gure ustez, apustu honek Haraneko ekonomia aktibatzen du eta mesedegarria da konfiantzarako eta harreman onetarako. Gisa berean, "0 Km" deritzan kontsumo mota horrek energia eta erregaien kontsumoa murrizten du, eta, hortaz, naturarekiko errespetua eta ingurunearen zaintza sustatzen ditu.

Beste alde batetik, aste horretan, apirilaren 7an -larunbata- I. Ondo Bizi Jardunaldia egin zen, esperientzia hau Karrantza herrira eta beraren ingurumarietara hurbiltzeko xedez; ekimenean parte hartu zuten artistek euren lanei buruz hitz egin zuten. Ildo beretik, ekitaldi hau osatzeko, antolatzaileek zenbait eragile gonbidatu zituzten Karrantzako ardiaren iragan, orainaldi eta etorkizunari buruzko mahai-inguru batera. Horien artean, honako hauek egon ziren: Manuel Sabino Díaz García, etnografoa; Izaskun Elitxegerra, artzaina eta Avascaneko presidentea; Ángel Kanete, Karrantzako mutur zuri ardien artzaina; eta Batis Otaegi, Arantzazuko Artzain Eskolako koordinatzailea.

Baserria; Pan y dulces de Matxako y de Magora bakery; Carne y embutidos de Lombera, miel de karrantza). También almorzaron en diferentes establecimientos locales (Dendaberri Taberna, Ibaiondo Taberna, Bar El Cruce, Casa Felisa, Bar Urbieta, etc.). Se alojaron en la casa rural Gure Naia, situada en el barrio de Ahedo. Y para terminar, dimos colofón final a esta II Residencia Artística del Buen Vivir con una comida junto a los/las artistas participantes y el grupo de pastores y pastoras de la Asociación Avascane, en el Restaurante Casa Garras de Carranza. El cocinero Txema Llamosas elaboró diferentes platos a partir de oveja, cordero y queso de oveja carranzana; productos locales aportados por Avascane. Difundiendo y renovando, de este modo, el patrimonio de las Encartaciones. Entendemos que esta apuesta activa la economía del Valle, favorece la confianza, y las buenas relaciones. Del mismo modo, este tipo de consumo «Km 0» promueve la disminución de energía y combustible; contribuyendo al respeto por la naturaleza y el cuidado al medio.

Por otro lado, durante esta semana, tuvo lugar el sábado 7 de abril la I Jornada del Buen Vivir, con el objetivo de acercar esta experiencia al pueblo de Carranza y sus alrededores; los artistas participantes hablaron sobre sus trabajos. Del mismo modo, para completar este acto, la organización invitó diferentes agentes que conformaron una mesa redonda en torno al pasado, presente y futuro de la oveja carranzana. Entre ellos estuvieron presentes: el etnógrafo Miguel Sabino Díaz García, la pastora y presidenta de Avascane Izaskun Elitxegerra, el pastor de oveja carranzana cara rubia Ángel Kanete y el coordinador de la Escuela de Pastores de Aranzazu, Batis Otaegi.







ONDO BIZI JARDUNALDIAK / JORNADAS DEL BUEN VIVIR
ARTE y PASTOREO
-KARRANTZA 2018-
Apirilak 7 de abril - Kultur etxea - 17:00 - 20:00h
Aurkezpena/presentación:
Il Ondo Bizi Arte Egonaldia
II RESIDENCIA ARTÍSTICA DEL BUEN VIVIR
ITXASO DIAZ, artista
ONINTZA ETXEBESTE, artista
PASADO, PRESENTE Y FUTURO DE LA OVEJA CARRANZANA
Ikus-entzunezko proiekzioa /audiovisual:
ARTZAIN-KULTURA KARRANTZA HARANAN - LA CULTURA PASTORIL EN EL VALLE DE CARRANZA
Hitzaldi-eztabaida /Charla-debate:
Miguel Sabino Diaz Garcia, etnógrafo
Izaskun Elitxegerra, pastora y presidenta de Avascane
Angel Kanete, pastor de oveja carranzana cara rubia
Batis Otaegi, coordinador de la Escuela de Pastores de Aranzazu
Zinema /cine: BOBINAS OVINAS: LA OVEJA Y EL CINEMATÓGRAFO
Bruno Delgado Ramo, artista



POZALAGUA

Horrez gain, gure gonbidatuek Pozalaguako Kobazuloa eta Dolomitas Antzinako lantegi-museoa bisitatu zituzten. Baserri batzuk esploratu zituzten, eta artisau-gazta prestatu zuten artzainekin batera. Era horretan, ekimenean parte hartu zuten artistek kolektibo honen eta bizikidetza-aldi honen artzaintza-lana ezagutu ahal izan zuten gertutik, eta horietako bakoitzak proiektu artistiko bat gauzatu zuen. Gero, proiektu horiek ekainaren 16an erakutsi ziren jendaurrean, Karrantzan egindako 2018ko ArTzai TopaKetan, hau da, nekazaritza eta artzaintza artearekin uztartzen dituen topaketan.

Sinesten dugu arte egonaldi hau garrantzitsua dela Karrantza Haranarentzat, zeren truke kultural esanguratsua ahalbidetzen baitu zenbait mailatan. Sentsibilizazioaren ikuspuntutik, eragina izan nahi du landa-munduaren arazoak eta oraingo ekoizpen kulturaletik urrun dagoen landa-ingurunea ezagutzen ez dituen publikoarengan. Horrelako jarduerak lagungarriak dira elkartzeko baserrien mundua eta hiria, goi kultura eta herri kultura, landa-eremua eta hiri-eremua, eta abar; aurrez aurre jarritako oposizio horiek, gaur egun, elkar ulertzearen eta elkarrekin bizitzearen beharra kuestionatzen dute.

Nuestros invitados visitaron, también, la Cueva de Pozalagua y la Antigua fábrica-Museo de Dolomitas. Exploraron algunos de los diferentes caseríos y elaboraron queso artesano junto a los pastores y pastoras. De este modo, cada artista participante pudo conocer de cerca, parte de la labor pastoril de este colectivo y de esta convivencia, cada uno de ellos, realizó un proyecto artístico que fueron mostrados al público en el Encuentro Artístico y agropastoril, ArTzai TopaKeta 2018, celebrado en Karrantza el pasado 16 junio.

Creemos en la importancia de esta residencia artística en el Valle de Carranza, ya que facilita un intercambio cultural significativo, a diferentes niveles. Incidiendo desde la sensibilización tanto en un público desconocedor de los problemas del mundo rural, como al entorno rural ajeno a la producción cultural actual. Este tipo de actividades permiten contribuir al encuentro entre el campo y la ciudad, lo culto y lo popular, lo rural y lo urbano, etc; oposiciones enfrentadas que, a día de hoy, cuestionan la necesidad de un entendimiento y convivencia.

MUTUR BELTZ,
sustatzeko elkartea agroekologikoa,
artistikoa eta kulturala, 2018

ONDO BIZI, MUTUR BELTZ!

Arantza Lauzirika,
Akmeka taldeko ikertzailea (UPV/EHU)
Investigadora del grupo Akmeka (UPV/EHU)

2018ko urrian, Santi Erasok benetakotasunari buruzko gogoeta bat idatzi zuen bere blogean[1], benetakotasun hori zentzu zabalenean hartuta, autoretzaren (gogora dezagun gaur egun bizirik dirauela, gutxienez gizarte-ingurune gehienetan, artista-jeinu-sortzailearen ideia) eta obra berdingabe, ezin erreproduzituzko eta auratikoaren inguruko ideia batzuk kuestionatzeko, edo engainuaren ideia ere kuestionatzeko, horien aurrean jabekuntza, mestizaia edo lan kolektiboa jarriz. Santik esaten zuen, arrazoi osoz, egiaren osteko aroak bitartasunaren ideian (benetakoa/kopia, ona/txarra, goi kultura/beheko kultura,…) oinarritutako egia argirik gabe utzi gaituela. Rosalía edo Niño de Elche jartzen zituen adibide gisa, zeren islatzen baitute gurutzaketa eta sasikotasuna, herri kulturatik eta goi kulturatik hartutako eta itxuraz desberdinak diren elementuen nahasketa, eta esaten zuen horrek, hau da, kulturaz beraren deribazio guztietan birjabetzeak, ordena kulturala astindu izan duela beti, eta, gainera, sorkuntza-prozesu ororen funtsezko elementua dela.

Musikaren adibidearekin jarraitzeko, flamenkoaren, traparen edo reggaetonaren arteko nahasketak, herri kultura instrumentalizatzetik harago, askotariko nahasketa aberats bat sortzen du, mota desberdineko gizataldeen ekarpena batuz. Era horretan, proiektu heterogeneo bilakatzen

1 Eraso Beloki, Santi. "Gramática del contacto" . Eskuragarri hemen: https://santieraso.wordpress.com/2018/10/08/gramatica-del-contacto/

En octubre de 2018, Santi Eraso escribía en su blog[1] una reflexión en torno a la autenticidad, en el más amplio de los sentidos, para poner en cuestión ideas en relación a la autoría (recordemos que a día de hoy pervive, al menos en la mayoría de los entornos sociales, la idea de artista-genio-creador), la obra única, irreproducible y aurática o la idea de la impostura, para contraponerlas a la apropiación, el mestizaje o el trabajo en colectivo. Santi alegaba razonadamente, que la era de la posverdad nos ha dejado huérfanos de certezas apoyadas en la idea de los binarismos (real/copia, bueno/malo, alta cultura/baja cultura,…). Ponía a Rosalía o al Niño de Elche, como ejemplos de que el entrecruzamiento y la bastardía, la mezcla de elementos en apariencia dispares de la cultura popular y la alta cultura, es decir, la reapropiación cultural en todas sus derivaciones, siempre ha sacudido el orden cultural y además constituye un elemento substancial en todo proceso creativo.

Por seguir con el ejemplo de la música, la mezcla entre el flamenco, el trap o el reggaetón, más allá de instrumentalizar la cultura popular, dan como resultado una mezcla diversa y rica, en la que las aportaciones de las diferentes colectividades se suman. Surgen así procesos que derivan en proyectos heterogéneos, que atraviesan

1 Eraso Beloki, Santi. "Gramática del contacto". Disponible en: https://santieraso.wordpress.com/2018/10/08/gramatica-del-contacto/

diren prozesuak sortzen dira, alegia, gizarte- eta belaunaldi-estratu ugari zeharkatzen dituzten prozesuak.

Horretaz pentsatzen ari nintzela etorri zitzaidan gogora Laurita Silesen lana: artista bat, (orain) euskalduna eta andaluziarra, bere ibilbidean aurkitu dituen kultura guztiak xurgatu dituena eta haietaz gustura kutsatu dena, inolako erreparorik gabe. Bere praktika artistikoan beti txertatu izan ditu musika- eta apaindura-elementu horiek guztiak; ahozko tradizioa, gastronomia, jendearen jakituria, lanbideak, errelatuak,… artistaren lanbidearen harrotasunak jarduera indibiduala exijitzen duela dioen ideia hori baztertuz; horren ordez, sorkuntza kolektiboaren alorrera eraman du beti lanbide artistikoa, eta hor autoretza taldekakoa eta irekia da, eta, gainera, artista anonimotasunera pasatzen da batzuetan, prokomunaren kontzeptuari (ezagutza komuna, komunitatearena) bidea uzteko.

Parte hartu duen proiektutan, dela banakakoak dela kolaboratiboak edo kolektiboak, testuinguruaren eragina barneratzeko prest egon da beti, beraren sorkuntza-proiektua formalki eta kontzeptualki aberasten laguntzen dioten alderdi ugari bereganatuz. Santik bere testuan gogor kritikatzen zuen engainuaren ideiatik oso urrunduta, Laurita "benetako" pertsona bat da.

Soraya bezala[2], hau da, Jose Miel harrijasotzaile-tripontzia burua galtzeraino maitemindu zuen panpina flamenko-kitscharen antzera, zapatekin dantzaka joan zen Islandia, Txina edo Kanadatik, enbaxadoreak ezagutu zituen eta sevillanak dantzatu zituen haiekin, txistuaren erritmoan; Triniak ezagutu zituen, eta

2 Soraya panpina flamenko bat da, Laurita Silesek egindako animazio serie hau protagonizatzen duena: "Las aventuras de Soraya y Jose Miel". Eskuragarri hemen: https://folklorenomada.com/section/431179-Las-Aventuras-de-Soraya-Joxe-Miel.html

transversalmente multitud de capas, tanto sociales, como generacionales.

Pensando en ello me venía a la mente el trabajo de Laurita Siles, una artista (ahora) vasco-andaluza, que no ha dudado nunca en dejarse empapar y contagiar por todas las culturas por las que ha transitado. Siempre ha incorporado a su práctica artística todos aquellos elementos musicales, ornamentales; la tradición oral, la gastronomía, el saber de las gentes, los oficios, los relatos, … dejando al margen esa idea de que el orgullo de la profesión de artista pasa por ser una actividad individual, y llevándola siempre al ámbito de la creación colectiva, en el que la autoría pasa a ser grupal, abierta, e incluso el artista pasa al anonimato para dejar paso al concepto del procomún (el conocimiento común, de la comunidad).

En los diferentes proyectos, tanto individuales como colaborativos o colectivos en los que ha tomado parte, siempre se ha dejado influenciar por en contexto, haciendo suyas toda una serie de cuestiones que le ayudan a enriquecer, formal y conceptualmente, su proceso creativo. Muy alejada de la idea de lo impostado contra la que arremetía Santi en su texto, Laurita es una persona "auténtica".

Como Soraya[2], la muñeca flamenca-kitsch de la que se enamoraba perdidamente el *harrijasotzaile*-barriguitas Jose Miel, se fue zapateando por Islandia, China o Canadá, y conoció emperadores con los que danzó sevillanas al *txistu,* Trinis con las que recorrió Beijing en *Txalamobil*, o

2 Soraya es una muñeca flamenco protagonista de de la serie de animaciones "Las aventuras de Soraya y Jose Miel" de la que es autora Laurita Siles. Disponible en: https://folklorenomada.com/section/431179-Las-Aventuras-de-Soraya-Joxe-Miel.html

haiekin Beijing zeharkatu zuen *Txalamobil*ez, edo natibo amerikarrak topatu eta dantza erritualetan aritu zen haiekin. Azkenean (ez iezadazue galdetu nola) biluzik agertu zen harea beltzezko eta ezin ahoskatuzko hondartza batean, Islandian, eta bertan euskal balea-arrantzale batek aurkitu zuen eta artilezko jertse lodi batez berotu zuen. Balea-arrantzalea, baina, Karrantzako artzain bat zen. Berak jakin gabe artista ere bazen artzain bat. Proiektu berri bat hasi zuen artista harekin. Azkenean bizi-proiektu bilakatu zen proiektu bat: Muturbeltz.

Erabilpenik gabekoaren erabilera berreskuratu nahirik, eta garrantzirik eman gabe euren asmoari ematen zitzaion sailkapenari, hau da, ea bat ote zetorren, etimologikoki edo kontzeptualki, proposamen situazionistekin (alor politikoaren eta artistikoaren artean kokatzen zen mugimendu hura, artearen abangoardia planteamendu marxistekin uztartzen zuena eta lan metodologiaren oinarritzat egoeren sorrera hartzen zuena), edo ea gehiago hurbiltzen zen Bourriauden asmakuntzara, hots, "estetika erlazionalera", euren bizilekuko testuinguruaren berreskuratze kultural, laboral eta ekonomikoari ekin zioten. Ezin zen hobeto esan, zeren haien proiektuaren asmoa ardi arraza bat berreskuratzea baita, mutur beltz ardia, Karrantza haraneko endemikoa izateaz gain desagertzeko arriskuan dagoena. Horretarako, beste ekintza batzuen artean, artzainek botatzen zuten artilea (baliorik ez zuelako) berreskuratzen dute eta haren erabilera eta berreskurapena sustatzen duten aplikazioak bilatzen dizkiote.

Haran bateko artzaintza-tradizioen balioa nabarmentzen dute; izan ere, tradizio horiek abandonatuz gero, komunitate-zentzua galdu egingo da. Ardi, artile, esne, gazta, ehule eta

nativos americanos con los que bailó danzas rituales. Acabó (no me preguntéis como) desnuda en una playa de arenas negras y nombre impronunciable de Islandia, donde la encontró un ballenero vasco que la calentó con un grueso jersey de lana. Un ballenero que resultó ser pastor de Karrantza. Un pastor que resultó ser también artista sin saberlo. Un artista con el que inició un nuevo proyecto. Un proyecto que resultó ser un proyecto de vida: Muturbeltz.

En un intento de recuperar la paradoja del uso en desuso, y sin importarles si aquello que proponen se corresponde, etimológicamente o conceptualmente, con las propuestas situacionistas (aquél movimiento entre político y artístico, en el que convergía la vanguardia del arte con los planteamientos marxistas y cuya metodología de trabajo se basaba en la creación de situaciones), o se acerca más a la invención de Bourriaud etiquetada como "estética relacional", comienzan a decepción trabajar en la recuperación cultural, laboral y económica del contexto en el que habitan. Nunca mejor dicho, porque su proyecto pasa por recuperar una raza de oveja, la muturbeltz, que además de ser endémica del valle de Karrantza, está en riesgo de desaparición. Para ello, entre otras acciones, recuperan la lana que los pastores desechaban (por no tener valor) y le buscan aplicaciones que fomenten su uso y recuperación.

Ponen en valor las tradiciones pastoriles de un valle, que si las abandona, acabará con el sentido de comunidad. Acabará con todas las generaciones que les precedieron con costumbres vinculadas a las ovejas, la lana, la leche, el queso, las tejedoras, los pastores, … en torno a las que se ha organizado durante cientos de años la vida del valle, y constituyen el conocimiento común del mismo.

artzainei lotutako ohiturekin aurretik izan zituzten belaunaldi guztiak ezabatuko dira… hau da, ehunaka urtez haraneko bizitzaren antolakuntzaren ardatza izan dena eta bertako ezagutza komuna osatzen duena desagertu egingo da.

"Antagonismo" kontzeptua aztertu zuenean, Bourriauden aipatutako estetika erlazionalaren aurrean, Bishopek hauxe esan zuen[3] :

> "Subjektuaren "deszentramenduak" subjektu bateratu baten absentzia dakar berekin; "ekintzak", berriz, subjektu autonomo bat dakar berekin, hots, erabateko presentzia, borondate politikoa eta autodeterminazioa dituen subjektu bat".

Erlazionaltasuna "bizikidetza-irizpideetan" oinarritzen da (galdera multzo bat, beraren ideologoaren ustez geure buruari egin behar dizkiogunak, honelako obra baten aurrean), eta hor ez dute garrantzirik "zer", "zergatik" eta "norentzat" galderek. Ekintza, aldiz, aipatutako parametroek determinatzen dute. Kolektiboa hartzen du kontuan, lan-objektu gisa, eta kolektibotasuna lan egiteko forma gisa.

Muturbeltz kolektibokoei "ekintzaile" izena emango genieke, baina horren esanahiak ez du inolako zerikusirik, edo zerikusi gutxi du, ekintzailetzaren ideia neoliberalarekin, zeren neoliberlismoarentzat ekintzailea "enpresa" berria sortzen duen subjektu ekonomikoa baita, eta ez kapital sinbolikoa, eta batez ere kapital erlazionala (komunitatekoa), sortzen duen kolektibo bat, Muturbeltz kolektiboaren kasuan bezala. Haien kasuan, ekintzaileak aktibistak edo aktibatzaileak

3 Bishop, Claire. "Antagonismo y estética relacional". Eskuragarri hemen: http://www.untref.edu.ar/cibertronic/lopublico_loprivado/nota12/claire-bishop_relacionismo-y-estetica-relacional.pdf

Bishop, cuando analiza el concepto de "antagonismo" frente a la ya nombrada estética relacional de Bourriaud, dice lo siguiente[3]:

> "El "descentramiento" del sujeto implica la ausencia de un sujeto unificado, mientras que "acción" supone un sujeto autónomo, de presencia plena, con voluntad política y autodeterminación."

En lo relacional, basado en los "criterios de coexistencia" (una serie de preguntas que su ideólogo sugiere que debemos hacernos ante una obra de estas características), el qué, el cómo, el para quién, carecen de importancia. Sin embargo, la acción (*ekintza* en euskera), está determinada por los parámetros mencionados. Tiene en cuenta el colectivo como objeto de trabajo y lo colectivo como forma de trabajar.

El colectivo Muturbeltz son lo que denominaríamos como "*ekintzaileak*" (la traducción en euskera de emprendedores), sin embargo, poco o nada tiene que ver con la idea neoliberal de emprendizaje entendida como un sujeto económico creador de una nueva "empresa" y no como un colectivo productor de capital simbólico, y sobre todo de capital relacional (de comunidad), como es su caso. En su caso *ekintzaileak* se traduce como activistas o activadores, que como Rube Goldberg[4] en sus *Inventions of Professor Lucifer Gorgonzola Butts*, ponen en marcha acciones que desencadenan

3 Bishop, Claire. "Antagonismo y estética relacional". Disponible en: http://www.untref.edu.ar/cibertronic/lopublico_loprivado/nota12/claire-bishop_relacionismo-y-estetica-relacional.pdf

4 Más información en: https://es.wikipedia.org/wiki/Rube_Goldberg. Las maquinas de Rube Goldberg inspiran la serie japonesa Pitagora Suichi, disponible en: https://www.dailymotion.com/video/x2j7r2

dira, zeren eta, Rube Goldbergek[4] bere *Inventions of Professor Lucifer Gorgonzola Butts* obran egiten duen bezala, erreakzioak sortzen dituzten ekintzak abiatzen baitituzte, eta erreakzio horiek ekintza berriak bultatzen dituzte berriro.

Horregatik, galeria bazterrean utzi dute, entretenimendu hutsean oinarritutako egitura artistiko bati eusteko lekua delakoan, bere jarduera- eta eragimen-eremua artelanak kontsumitzeko aurre-joera duen ikusle multzo mugatu bati soilik zuzentzen diolako; horren ordez, Lauritak eta Josebak euren komunitatea sostengatzearen alde egiten dute (eraldatu nahi izateko harrokeriarik azaldu gabe). Ezagutzen duten guztia hurbiltzen dute Karrantzara: artea eta artistak; eta, aldi berean, artera hurbiltzen dituzte artilea eta haren prozesuak, ardiak, eta horiekin lotuta dagon guztia.

Zenbait urte daramatzate Artzai Topaketa antolatzen, eta ekimena nekazaritzako eta artzaintzako topaketa artistiko bihurtu da azken bi edizioetan. Bertan, artistak artisauekin elkartzen dira, gaztak zeluloidearekin, artilea kontzeptualizatu eta performatibizatu egiten da, bertokoak eta arrotzak bereizten ez dituen nahasketa bat sortuz: hemengoak eta bisitariak, artistak eta artzainak. Ardia, gazta, jogurta jaten dira; ikusgai egoten dira ardiak, behiak, astoak eta bertoko txakurren arraza bat (Enkarterriko Billanoak), berau ere desagertzeko bidean; edo, ikuspegi baikorrago batez begiratuta, berreskuratze bidean dagoen arraza bat.

Duela bi urtetik hona, instituzioekin borrokatzearen bidez lortzen dituzten baliabide

4 Informazio gehiago hemen:
https://es.wikipedia.org/wiki/Rube_Goldberg.
Rube Goldbergen makinek PItagora Suichi serie japoniarra inspiratzen dute, eskuragarri hemen:
https://www.dailymotion.com/video/x2j7r2

reacciones, que a su vez, desencadenan nuevas acciones.

Por ello, dejando al margen la galería como lugar de apoyo de una estructura artística basada en el puro entretenimiento, que reduce su marco de acción e influencia a un grupo limitado de asistentes, predispuestos al consumo de obras de arte; Laurita y Joseba abogan por intentar apoyar (sin la arrogancia de querer transformar) su comunidad. Acercan a Karrantza aquello que conocen: el arte y las y los artistas, y acercan al arte, la lana y sus procesos, las ovejas, y todo el entorno vinculado a ellas.

Organizan desde hace varios años el *Artzai Topaketa*, que se ha transformado en las dos últimas ediciones en un encuentro artístico agropastoril. Allí las artistas conviven con los artesanos, los quesos con el celuloide, la lana se conceptualiza y performativiza, dando lugar a una mezcla que no distingue entre propios y ajenos, entre locales y visitantes, entre artistas y pastores. Se come oveja, queso, yogurt; se ven ovejas, vacas, burros y una raza de perros locales (los Villanos de las encartaciones), también en vías de extinción; o en una visión más optimista, en vías de recuperación.

Desde hace dos años, con los escasos recursos que consiguen peleando con las instituciones, han puesto en marcha las residencias Ondo Bizi (Buen Vivir). Un/a artista invitada/o, además de una/o o dos artistas seleccionados por convocatoria, conviven durante una intensa semana con las gentes del valle. Conocen a las personas y sus trabajos, las tareas del día a día, la convivencia con las ovejas y los perros que las dirigen y las guardan, los procesos de ordeño y fabricación del queso, del esquilado, el cardado y tejido de la lana.

urriekin, Ondo Bizi egonaldiak jarri dituzte martxan. Gonbidatutako artista bat, eta deialdiaren bidez aukeratutako artista bat edo bi, jardueraz betetako aste batean bizi izaten dira haraneko jendearekin. Hango mundua ezagutzen dute: pertsonak eta haien lanak, eguneroko zereginak, ardiekiko eta horiek gidatu eta gordetzen dituzten txakurrekiko bizikidetza, ardiak jezteko eta gazta ekoizteko prozesuak, ilea mozteko eta artilea kardatzeko eta ehuntzeko lanak. Haraneko etxe batean jan eta lo egiten dute, eta modu bizian eta emozio handiz bizi izaten dute jarduera-programa mardul bat; horren bidez, normalean eurentzat arrotza den errealitate batean murgiltzen dira. Horren ostean, euren etxe eta ikasketetara itzultzen dira, euren bizimodura, haien aukeraketara bultzatu zituen proiektu hartan lan egiteko, orain deriba berriak hartuta.

Artzai Topaketaren egunean euren proiektuak aurkezten dizkiete Karrantzako bizilagunei, ikusminez bertaratzen direnei eta hiritik etorritako artista eszeptikoei. Instalazio formatuan, soinu-ekintza gisa, postal-serietan, argazki-irudietan, behaketa-dokumentalean, bideo esperimentalean, edukiontzi-objektu gisa, zeluloidezko filmetan,… orain arte aurkeztutako prozesu eta proiektuen displayek harritu egin dituzte horiek inspiratu zituzten protagonistak eta Karrantzako bizilagunak.

Egonaldi artistiko bat unibertsitate-prestakuntza duten artistekin landa-eremu batean konpartitzeko proiektua Kropotkinen tesietara [5]hurbiltzen du kolektiboaren ideia; izan ere, XX. mendearen hasierako anarkista errusiar horrek lankidetzaren eta elkarren arteko laguntzaren garrantzia azpimarratzen zuen, espeziearen

5 Koprotkin, Priotr. El apoyo mutuo: un factor en la evolución. Lehenengo edizioa. Ed. William Heinemann. Londres 1902.

Comen y duermen en una casa del valle, y viven intensa y emocionadamente un apretado programa de actividades, mediante el que se empapan en una realidad, que normalmente les es ajena. Después regresan a sus casas, a sus estudios, a su vida, para trabajar en aquel proyecto por el que fueron seleccionados y que ahora tomará nuevas derivas.

El día del *Artzai Topaketa*, presentan sus proyectos a las vecinas y vecinos de Karrantza, a los curiosos y a los artistas escépticos venidos de la ciudad. En formato instalación, acción sonora, series de postales, imágenes fotográficas, documental observacional, video experimental, objeto contenedor, películas en celuloide, … los *displays* de los procesos y proyectos presentados hasta la fecha, han asombrado a los protagonistas que los inspiraron, las y los vecinos de Karrantza.

El proyecto de compartir una residencia artística en un entorno rural con artistas con formación universitaria, acerca la idea del colectivo a la tesis de Koprotkin[5] -anarquista ruso de comienzos del siglo XX-, que incidía en la importancia de la cooperación y la ayuda mutua en el perfeccionamiento de la especie, y señalaba lo siguiente en relación a como progresa una sociedad:

> "Pero la sociedad, en la humanidad, de ningún modo se ha creado sobre el amor ni tampoco sobre la simpatía. Se ha creado sobre la conciencia -aunque sea instintiva- de la solidaridad humana y de la dependencia recíproca de los hombres. Se ha creado sobre el reconocimiento inconsciente semiconsciente de la fuerza que la

5 Koprotkin, Priotr. El apoyo mutuo: un factor en la evolución. Primera edición Ed. William Heinemann. Londres 1902.

hobekuntzarako jokatzen duen rolagatik, eta hauxe adierazi zuen gizarteen aurrera egiteko moduaz:

> "Baina gizartea, gizadian, ez da inola ere sortu maitasunean oinarrituta, ezta sinpatian oinarrituta ere. Giza elkartasunaren kontzientzian -instintiboa izan arren- eta gizakien elkarrekiko mendetasunean oinarrituta sortu da. Gizabanako bakoitzaren zorionaren mendetasun estuaren praktika komunak guztion zorionari ematen dion indarraren aitortza inkontziente edo erdi-kontzientearen gainean sortu da, eta justizia edo ekitate sentimenduen aitortzaren gainean, horiek behartzen baitute gizabanakoa gainerako guztiak, banan-banan, bere eskubide propioen parekotzat hartzera"

Muturbeltz gizataldea guztiz kontzientea da elkartasunaren beharraz, eta, batez ere (nahiz eta batzuetan asko kostatzen den horra iristea), norberari gustatzen zaion arloan lan egiteak ematen duen zorionaz, justizia eta ekitate baldintzetan. Kolektibitatea, kolektibotasuna, komunitatearen ideiatik harago doa; termino hori XIX. mendean sortu zuen Ferdinand Tönniesek[6], eta honela laburbiltzen da:

> "Gizakiak euren borondatez modu organikoan erlazionatuta dauden eta elkar indartzen duten tokian, hor aurkituko dugu komunitate formaren bat".

6 Tönnies, Ferdinand, Comunitat i associació,, Edicions 62/ La Caixa, Bartzelona, 1984. 45. orrialdea. Originala 1887koa da.

> práctica común de dependencia estrecha de la felicidad de cada individuo de la felicidad de todos, y sobre los sentimientos de justicia o de equidad, que obligan al individuo a considerar los derechos de cada uno de los otros como iguales a sus propios derechos".

La colectividad Muturbeltz, es plenamente consciente de la necesidad de solidaridad y sobre todo (aunque a veces cueste mucho llegar a ella), de la felicidad de trabajar en aquello que a cada cual le gusta, en condiciones de justicia y equidad. La colectividad, lo colectivo, va más allá de la idea de comunidad; un término que tiene su origen en el siglo XIX por Ferdinand Tönnies[6] y que se resume como:

> "Allí donde los seres humanos estén relacionados por voluntad propia de una manera orgánica y se afirmen entre ellos, encontraremos una u otra forma de comunidad".

Sin embargo, la idea de Muturbeltz se acerca más a idea de Maurice Halbwachs[7], al que se refiere Manuel Delgado en un intento de diferenciar lo común de lo colectivo cuando asevera:

> "Comunidad se funda en la comunión; la colectividad, en cambio, se organiza a partir de la comunicación. En apariencia, la comunidad y la colectividad implican una parecida reducción a la unidad. La

6 Tönnies, Ferdinand, Comunitat i associació, Edicions 62/ La Caixa, Barcelona, 1984. P.45. Original de 1887

7 Halbwachs, Maurice, La memoria colectiva, Publicaciones de la Universidad de Zaragoza, Zaragoza, 2004

Hala eta guztiz ere, Muturbeltzen ideia gehiago hurbiltzen da Maurice Halbwachsen[7] ideiara; hala, Manuel Delgadok berari buruz hitz egiten du, komuna dena eta kolektiboa dena bereizteko ahaleginean, hau esaten duenean:

> "Komunitatea erkidetasunean oinarritzen da; kolektibitatea, berriz, komunikaziotik abiatuta antolatzen da. Itxuraz, komunitateak eta kolektibitateak batasunera eramaten dute, modu berean. Desberdintasuna, baina, garrantzitsua da, alegia: komunitateak koherentzia exijitzen du, baina kolektibitate orok behar eta sortzen duena kohesioa da[8]"

Paradoxikoa bada ere, bilatzen dutena da Karrantza hareneko komunitatearekiko kohesioa, eta baita komunitate horren barneko kohesioa ere. Erika eta Pedroren laguntzarekin; Sabino, Izaskun, Angel eta Txemaren laguntzarekin; Avascane eta Karrantzako artzainenarekin, familia, Beldur eta Neskaren laguntzarekin; eta orain Lurrek emandakoarekin, bera baita abentura honi atxiki zaion azkena. Ezagutza komunetik abiatzen den eta ezagutza hori egonaldian parte hartzeko erronka onartzen duten artistekin konpartitzen duen kolektibitate bat osatzen dute. Horrela egin dute Itxaso, Onintza, Bruno, Nader, Oihane eta Pedrorekin; eta horrela egingo dute hurrengo urteetan Karrantzara etorriko diren artistekin.

Santi Erasorekin amaitu nahi dugu, hau da, idazki honen hasierako testua idatzi zuen autorearekin. Gure ustez, haren hitzek ondo baino

> diferencia, con todo, es importante y consiste en que si la comunidad exige coherencia, lo que necesita y produce toda colectividad es cohesión[8]"

Buscan, paradójicamente, la cohesión con y entre la comunidad del valle de Karrantza. Con la ayuda de Erika y Pedro; de Sabino, Izaskun, Angel, Txema; de Avascane y de las pastoras y pastores de Karrantza; de la familia, de Beldur y Neska; y ahora con la de Lur, la última en sumarse a esta aventura. Forman una colectividad que parte del conocimiento común y lo comparte con las y los artistas que aceptan el reto de participar en la residencia. Así lo han hecho con Itxaso, Onintza, Bruno, Nader, Oihane y Pedro; y así lo harán con las y los próximos artistas que acudan a Karrantza en los sucesivos años.

Queremos terminar con Santi Eraso, a cuyo texto nos referíamos al comienzo de este escrito. Nos parece que sus palabras resumen a la perfección la idea que ronda en las cabezas de Laurita y Joseba:

> "De forma sintética, se podría decir que existen dos formas de relacionarse con el mundo de la creación: por un lado, los que piensan que la obra artística es el resultado de un "yo" –sujeto creador- que crea ex nihilo, es decir de la nada, como si hubiera un principio originario, por tanto los que defienden la originalidad y el artista-genio como los elementos legitimadores de toda obra de arte "auténtica" (…); por otro, los que

7 Halbwachs, Maurice, La memoria colectiva, Publicaciones de la Universidad de Zaragoza, Zaragoza, 2004

8 Delgado, Manuel in "Lo común y lo colectivo" 2008, Medialab Prado, testua hemen dago eskuragarri: http://medialab-prado.es/mmedia/0/688/688.pdf

8 Delgado, Manuel en "Lo común y lo colectivo" 2008, Medialab Prado, texto disponible en: http://medialab-prado.es/mmedia/0/688/688.pdf

hobeto laburbiltzen dute Laurita eta Josebaren buruan dantzan ibiltzen den ideia.

> "Laburbilduz, esan liteke badirela bi forma sorkuntzaren munduarekin erlazionatzeko: alde batetik, batzuek pentsatzen dute artelana ex nihilo sortzen duen "ni" –subjektu sortzaile- baten emaitza dela; hau da, artistak ezerezetik sortzen du, jatorrizko printzipio bat egongo balitz bezala, eta, hortaz, ideia hauen aldekoek orijinaltasuna eta jeinu-artista defendatzen dituzte "benetako" artelan guztiak legitimatzen dituzten elementu bezala (…); beste batzuek, berriz, pentsatzen dugu edozein adierazpen sortzaile hartzekoduna dela beti, gradu batean edo bestean, hau da, heredatutako ezagutza, ohitura, ahots, irudi eta testu ugariren hartzekoduna, horiek "adimen kolektiboaren " zati bereizezina baitira"[9].

Sorkuntzaren bigarren adiera hori da Muturbeltzek praktikatzen duena, hots, mestizaian, hibridazioan, heredatutako ezagutza komunean, kultura-ondarean, aipamenean, omenaldian eta gurutzatutako erreferentzietan oinarritutako adiera. Ezer gutxi gaineratu dezakegu, bakarrik desiratzea proiektu honetan urte askoz lan egin ahal izan dezatela, belaunaldi-erreleburako formula aurkitu ahal izan dezaten, eta Lurrek aukera izan dezala XXI. mendeko ziber-artzain bat izatera iristeko.

Ondo bizi, Muturbeltz!

9 Op. Cit Eraso, Santi.

> creemos que cualquier expresión creativa siempre es acreedora, en diverso grado, de una infinidad de conocimientos, costumbres, voces, imágenes y textos heredados o compartidos que forman parte indisoluble de la "inteligencia colectiva".[9]

Esta segunda acepción de la creación, basada en el mestizaje, la hibridación, el conocimiento común heredado, el bagaje cultural, la cita, el homenaje y las referencias cruzadas, es la que practica Muturbeltz. Poco podemos añadir, solo desearles que puedan seguir trabajando en este proyecto durante muchos años, que puedan dar con la fórmula para el relevo generacional y que Lur pueda llegar a ser una ciber-pastora del siglo XXI.

Ondo bizi, Muturbeltz!

9 Op. Cit Eraso, Santi.

“KARRANTZAKO ERRETRATUAK”
(RETRATOS DE KARRANTZA)

Bideo documentala, 15’ 55”
HD Formatua
Hizkuntzak: gaztelania eta euskara(gaztelaniazko azpitituluak)

Video dokumental, 15’55”
Formato HD
Idioma: castellano y euskera (subtítulos en castellano)

Itxaso Díaz
itxasodiaz.com

Azken urteotan, ikus-entzunezko ekoizpen batzuk garatzen ibili naiz, identitatea, lurraldea, bizitzako istorioak eta bideo-erretratua ardatz hartuta. Nire interes pertsonalek eta nire ibilbide artistiko eta profesionalak bultzatuta, gero eta neurri handiagoan zuzentzen dut nire kamera pertsonengana eta garatzen ditugun lanetara, honako hau azpimarratuz: nortzuk gara? Nondik gatoz? Zerk motibatzen gaitu? Zerk mugitzen gaitu? Zerk sortzen digu grina? Nola du eragina lurraldeak gure identitatean?

Alderdi horiei jarraipena emanez, Mutur Beltz kolektiboak *Ondo bizi arte egonaldian* parte hartzeko egin zidan proposamenaren aurrean, erabaki nuen hau planteatzea:

> "Karrantzako bizikidetza-esparrua, paisaiaren, nekazarien eta ardien munduaren arteko elkarreragin gisa ulertuta, proposamen honen xede bihurtzen da. Izan ere, beraren asmoa da esperientzia historiko eta garaikide multzo baten bidez ehundu den sare baten ikus-entzunezko zirriborro bat egitea, esperientzia horiek zeresan asko duen lurralde baten identitatearen zati baitira. Bertoko eta kanpoko izaeren nahasketatik narratiba bat sortzen da, gai berberaren eta espazio berberaren inguruan, mosaiko plural, heterogeneo eta askotariko bat irudikatzen duen bideo-erretratu multzo bat sortuz".

En los últimos años vengo desarrollando distintos producciones audiovisuales que giran en torno a la identidad, el territorio, las historias de vida y el videoretrato. Mis intereses personales, así como mi trayectoria artística y profesional, me llevan a enfatizar y enfocar, cada vez más, mi cámara sobre las personas y los distintos trabajos que desarrollamos; ¿Quiénes somos? ¿De dónde venimos? ¿Qué nos motiva? ¿Qué nos moviliza? ¿Qué nos apasiona? ¿Cómo influye el territorio en nuestra identidad?

Dando continuidad a estos aspectos, ante la propuesta de participación en la *Residencia artística del buen vivir*, por parte del colectivo Mutur Beltz, decidí plantear lo siguiente:

> "El espacio de convivencia Karrantzano, entendido como la interacción entre el paisaje, el paisanaje y el mundo ovino, se convierte en el foco de atención de esta propuesta que pretende realizar un esbozo audiovisual de lo que probablemente se conforma como un entramado tejido a lo largo de una acumulación de experiencias, históricas y contemporáneas, que representan parte de una identidad de un territorio que tiene mucho que contar. La mezcla del sentir de lo local y lo foráneo darán forma a una narrativa en torno a una misma temática y un mismo espacio, generando un conjunto de videoretratos que dibujen un mosaico plural, heterogéneo y diverso."

Lurrean bertan egonda, eta Karrantzako haranaren mapaketa kolektibo bat egin ondoren, egonaldiko gainerako partaideekin batera, bi kontzeptuak islatzen dituzten pertsonen aukeraketa bat egin da, hots, bertokoa eta kanpokoa islatzen dituzten pertsonak aukeratu dira: Haranean aspaldi-aspalditik bizi izan diren familien sei pertsona; eta beste sei pertsona, euren bizitzaren une batean, arrazoi desberdinengatik, Haranera etortzea eta berton bizitza berri bat hastea erabaki dutenak. Hamabi pertsona horiek dira egonaldiaren barnean izandako bizipenaren eta garapen artistikoaren ondorioz sortu den bideoaren protagonista absolutuak.

Una vez en terreno y tras realizar un mapeo colectivo del Valle de Karratza, junto al resto de participantes de la residencia, se realiza una selección de personas que representan los dos conceptos: lo local y lo foráneo; seis personas que pertenecen a familias que han habitado el Valle desde tiempos históricos y seis personas que por distintos motivos han decidido, en un momento dado de sus vidas, trasladarse al Valle para empezar una nueva vida. Estas doce personas son las protagonistas absolutas del vídeo que se genera como resultado de la experiencia y el desarrollo artístico dentro de la residencia.

Xabier Mendizabal, Artzaina: animalien eta haranaren zale amorratua txiki-txikitatik. Harana paradisu bezala deskribatzen du, bertan bere burua aurkitzen duela esanez. Pastor: Apasionado de los animales y del valle desde pequeño. Describe el Valle como un paraíso donde él se encuentra a sí mismo.

Virginia Elgea, Artzaina: Haren arbasoak Karrantzakoak dira. Natura hutsa, bizi-estiloa eta jendea bestelakoak dira… Karrantzarekin estu lotuta dago. Pastora: Desciende de familiares de Karrantza. Naturaleza pura, estilo de vida y su gente es diferente… Está apegada a Karrantza.

Jose Mari Llamosas, Ostalari eta abeltzaina: Animaliak gustukoak ditu, eta baita natura ere, ostalaritzako estresetik deskonektatzen laguntzen baitio. Haraneko bizimodura moldatuta dago. Hostelero y ganadero: Le gustan los animales, la naturaleza que le ayuda a desconectar del estrés de la hostelería. Está amoldado al Valle.

Eufemia Múgica Barrera, Zaintzailea eta irulea: Karrantzako alaba peto-petoa, Lanzasagudasen jaioa. Nebak zaindu ditu… Lurra landu, abereekin, iruten... Cuidadora e hilandera: De Karrantza de toda la vida, nacida en Lanzasagudas. Ha cuidado de los hermanos… Trabajando en la tierra, con le ganado, hilando…

Joseba Edesa Portillo, Artzaina eta irakaslea: Karrantzakoa da, baina Zallan bizi izan da txikitatik. Karrantza deskribatzean, oso herri polita eta alaitsua dela esaten du, bere idiosinkrasiarekin… Ardiek lana eta gatazkak sortu zizkioten bere gurasoekin, gaztea zenean… Baina orain maite ditu.

Pastor y profesor: Es de Karrantza pero ha vivido en Zalla desde pequeño. Describe Karrantza como un pueblo muy bonito y alegre, con su idiosincrasia… Las ovejas supusieron trabajo y conflictos con los padres cuando era joven… Pero ahora, las quiere.

Izaskun Eletxigerra, Artzaina eta ostalaria: Karrantzako alaba peto-petoa. Ahal izanez gero, ardiekin biziko litzateke: "Haiekin jaio naiz, haiekin bizi izan naiz, eta haien ondoan bukatu nahi nuke".

Pastora y hostelera: De Karranza de toda vida. Si pudiese vivir de ello viviría con las ovejas: "He nacido con ellas, he vivido con ellas y me gustaría acabar con ellas".

Helen Groome, Gaztagilea: Jatorriz ingelesa, 20 urte baino gehiago daramatza Haranean bizitzen… Baserri giroko ingurune lasaia dela uste du, eta gustura bizi da bertan. Queresa: De origen inglés lleva más de 20 años viviendo en el Valle… Lo describe con un entorno muy rural, tranquilo, donde le gusta vivir.

Pedro Salgado, Okina eta artista: Jatorriz Güimaraesekoa da, Portugal. Leku lasai bat bilatzen zuten, bizitzeko eta ortu bat kudeatu ahal izateko. Zoriontsu da, pertsona moduan behar duen garapena lortzen duelako. Panadero y artista: Original de Güimaraes, Portugal. Buscaban un sitio tranquilo para vivir y donde poder gestionar un huerto. Es feliz porque se desarrolla como persona.

Laurita Siles, Artista: Jatorriz Marbellakoa. Karrantza familia eta etorkizun bezala deskribatzen du. Gustukoa du animaliekin kontaktuan egotea. Bere jarduna ekintzailetzatik garatzen du, artearen eta ardi-munduaren artean. Artista: Original de Marbella. Describe Karrantza como familia y futuro. Le gusta estar en contacto con los animales. Desarrolla su actividad desde el activismo entre el arte y el mundo ovino.

Onintza Etxebeste, Artista: Ondo bizi egonaldiaren parte-hartzaileetako bat da. Bere proiektuaren ardatza da muturbeltzak (eta abereek, oro har) direla baserria Karrantzan aktibatzen dutenak. Artista: Es una de las participantes en la residencia del buen vivir. Su proyecto gira en torno a cómo en Karrantza son las muturbeltz (y el ganado en general) las que activan el caserío.

Erika Yurre, Arista eta artisaua: Bilbon jaioa, Karrantzara aldatu zen orain dela 7 urte bere bikotekidearekin. Harana leku sakabanatu gisa deskribatzen du, eta horrek berezitasuna ematen dio jendearekin harremanak izateko moduari. Arista y artesana: nacida en Bilbao se mudó a Karrantza con su pareja hace 7 años. Describe el Valle como disperso, lo que hace característico cómo te relacionas con la gente.

Bruno Delgado, Artista: Sevillakoa, ardien inguruko proiektu zinematografiko bat garatzera etorri da Karrantzara. Sentsazio positibo eta itxaropentsu bat darama berekin, alegia, baserriko bizitzara itzuli egin daitekeela. Artista: De Sevilla, ha venido a Karrantza para desarrollar un proyecto cinematográfico en torno a las ovejas. Se lleva la sensación positiva y esperanzadora de que se puede volver al campo.

Karrantzako erretratuak prozesu honen emaitza da: formatu dokumentaleko bideo bat, 15 minutu eta 55 segundoko iraupena duena eta bere irudietan Karrantza Haraneko paisaia zoragarri eta berdeak tartekatzen dituena hamabi pertsona protagonista horiei buruzko sarrerekin, erretratu gisa aurkeztuta; erretratuak haien lan-esparruetan grabatu dira, jardueraren bat garatzen zuten bitartean.

Karrantzako erretratuak es el resultado de este proceso: un vídeo de textura documental, con una duración de 15minutos 55 segundos, que recoge imágenes de los maravillosos y verdes paisajes del Valle de Karrantza intercalados con la introducción, a modo de retratos, de estas doce personas protagonistas, grabadas en sus espacios de trabajo y mientras desarrollaban alguna actividad.

“MAITE EZ DUENAK UZTEN DU”
(QUIEN NO LO AMA, LO DEJA)

Instalazio sonoro kuadrofonikoa, 8’ 02”
Pasarteak, tentsioak, bizipen eta gogoetak.
Arkeologia sonoro bat, Karrantzako harenean.

Instalación sonora cuadrofónica, 8’02”
Fragmentos, tensiones, vivencias y pensamientos.
Una arqueología sonora, en el Valle de Carranza.

Onintza Etxebeste Liras
onintzaetxebesteliras.com

"Cómo no va a existir… Toda la vida ha existido. A ver, existir, existirán los caseríos yo creo ¿no? Yo creo, todavía hay muchos, hay caseríos sí, sí. Habrá pocos pero todavía hay."

Ahots marrantatua, xahutua. Galdera xume baten erantzuna, ezezkoa. Bizimodu baten erresistentzia gogortu bat, ezagututakoaren lekukoa iraunarazteko nahia. Elkarrizketen lehenengo trazoa. Galdera probokatibo baten erantzunaren soiltasuna. Ihardespen berak izkutuan dakarren larritasuna, ardura. Nola justifikatu galderaren funtsa, inor eragotzi edo mindu gabe. Nola murgildu baserri batean, eta bere munduaren existentzia duda-mugan jarri. Nola desegituratu tradizionaltasun sinboliko baten ideia, iraganean determinatutako nortasun kultural batena. Nola esku hartu, bere eraldakortasun hori abian jartzerako tartean. Eragin bat suposatzea, armiarmaz beteriko sarea astintzea. Eztabaida bat sortzea, logika berriak antzemateko aukerak.

Una voz ronca, gastada. Negarse, la respuesta a una humilde pregunta. La resistencia de un modo de vida, el permanecer y ser testimonio de lo previamente conocido. Los primeros trazos de la conversación. La sobriedad de lo respondido a una pregunta provocativa. La responsabilidad y preocupación que lleva oculta su réplica. Cómo justificar el "porqué" de la pregunta, sin enojar ni perjudicar a nadie. Cómo entrar al caserío y poner en duda la existencia de su mundo. Cómo desestructurar la idea simbólica de lo tradicional, de una identidad cultural determinada al pasado. Cómo participar en el linde de poner en marcha el imaginario de su transformación. Suponer una causa, sacudir su red llena de arañas. Visualizar una controversia, en el reconocimiento de nuevas posibilidades y lógicas.

"Al final ya no es el caserío, ya son naves… Las vacas, las ovejas están en el caserío, luego otra casa aparte para vivir. No es como antes."

Ahots gaztea, kementsua, itxaropentsua. Gertukoa, pentsakorra, irekia. Hazienda, baserria eta bizimodua erdigunean. Kontzeptzio desberdinak, garai desberdinak, bizipen desberdinak. Beste helarazpen bat, galdera berari emandako erantzun bat, belaunaldi berri bat, arnasgune bat. Esanahi

Una voz jóven, vigorosa, esperanzadora. Cercana, pensativa, abierta. El ganado, el caserío y el modo de vida como nexo. Concepciones diferentes, tiempos diferentes, vivencias diferentes. Otra transmisión, otra respuesta a una misma pregunta. Una nueva generación, un soplo de aire.

berri baten geruza, gertakarien isladaren bermea. Aldaketaren testigantzaren lekukoa emango duen saiakera berri bat. Ahotsen arteko harremanak, kontrasteak, bategiteak. Belaunaldi arteko tartea. Denaren eta izan nahi denaren arteko talka. Izate bat, aldaketa bat. Eztabaida abian mantentzen da.

La envoltura de un nuevo significado, reflejo del acontecer. Un nuevo intento, el testimonio del cambio. Voces contrastadas, mezcladas, fundidas. Un hueco intergeneracional. Un enfrentamiento entre lo que se es, y lo que se quiere ser. La garantía de un cambio, de un seguir siendo. La controversia se mantiene en pie.

"Pagaban poco, el pienso costaba mucho, y eso al final, si no dan para ellas, pues no… Si no dan para ellas no llega para ti. Entonces no, es muy difícil."

Bere baitan geratu nahi ez duen ahotsa. Kemenaren eta ezintasunaren arteko arrangura. Egunerokotasunaren arazoak kontatzeko, helarazteko beharra. Alegi-azkotasun baten gainbehera. Kapitalismo mardularen garaian baserria jasangarria izateko beharra. Eguneroko lana, aldibereko ekonomia, balore eta bizimodu horien saiakera. Kanpotik sortutako iruditegi baten mendekua, idilismoaren gaitza erresistentziaren aurka. Ardiak eskean ari dira bee egiten. Oiloak elikatu, ardiak jaso, lastoa bota, pentsua jarri.

Una voz que no quiere limitarse a sí misma. Un lamento entre el mérito y la impotencia. La necesidad de relatar, narrar los problemas del día a día. El declive de un imaginario. El deseo de hacer que el caserío sea sostenible en los tiempos del agresivo capitalismo. La labor diaria, la economía paralela, el ensayo y continuidad de una serie de valores y modos de vida. La resistencia contra el mal de lo idílico, la venganza del imaginario del otro. Las ovejas balan, exigen comida. Alimenta las gallinas, recoge el rebaño, echar paja, poner pienso.

"La generación de detrás no… No le gusta. Entonces, mal asunto. Casi se han buscado la vida. Casi que me alegro eh, porque esto es un poco… Donde esté un buen trabajo no tienes que venir aquí, todos los días… (…) Así que, este es un caserío que, hasta donde llegue. El día que yo no pueda se acabó."

Nostalgiaren ahotsa azaleratzen da, indarrez kutxa gaitzakeen gaitza. Ahots goxoa, lasaia, jakintsua. Tonu baxua, ilusiorik gabekoa.

Se asoma la voz de la nostalgia, el mal de un sentimiento que puede contagiarnos con fuerza. Una voz suave, tranquila, sabia. De tono

Erabakien biziraupena, perspektiben erratzea, nekea. Balore hainbaten baitan bizi ezin izatearen ernegazioa. Etsipena, nahi izate horren ezintasuna. Baserriaren mantenuaren ondorioz baldintzatutako bizitza. Urteen poderioz galdutako esperantza. Etorkizunera begira, perspektiba eskasak. Hurrengo belaunaldienganako konfidantza falta. Iraganaren eta orainaldiaren arteko negoziazio baten beharra, prozesu jasangarri baten beharra. Nostalgiak urdinez margotu ditu ahots sareen arteko eztabaida harremanak, amaitutako nortasun baten galera sentimendu aurreratu batean. Ardiak txakurrarekin bildu, borda barnean sartu. Etxe azpiko ikuiluan barneratzen gara. Behiei bazka eskeintzen die. Elkarren artean hitz egiten jarraitzen dugu. Azienda behin eta betiko kentzearen gogoeta, ahotsaren bere barnerako mehatxu xuxurlatua. Ilunabarra gau bihurtu da jada. Bitartean, nahi eta ezin. Nahi, eta ezin.

bajo, baja de ilusión. El perdurar de las decisiones, el cansancio de perspectivas erradas. La rabia de no poder vivir en base a ciertos valores. Decepción, del querer y no poder. La vida condicionada por el perdurar del caserío. Esperanzas perdidas en el tiempo. Pocas expectativas respecto al futuro. Falta de confianza en las generaciones venideras. La necesidad de un puente, de un proceso sostenible entre pasado y presente. La nostalgia ha teñido de azul nuestras relaciones. Un sentimiento de pérdida identitaria nos toma la delantera. Recoge el rebaño de ovejas, las acoje en el aprisco. Nos reunimos en el establo que está bajo su hogar. Ofrece forraje a las vacas. Continuamos hablando entre nosotros. Surge la reflexión de olvidarse del ganado para siempre, una amenaza que susurra para sus adentros. El atardecer se ha convertido ya en noche. Mientras tanto, quierer y no poder. Querer, y no poder.

"Yo por lo menos así lo veo y, es que es así.
Si te quedas ahí parado y resistes, resistes… Resistes pero malamente."

Erresistentzia bat. Korronte baten inertzia zailtzen duen jardutea. Nahi izatearen erresistentzia, nahi eta ezinaren aurreko erresistentzia.

Una resistencia. El acto que dificulta la inercia de una corriente. La resistencia del querer, la resistencia del querer y no poder.

"Hay que tener mucha cantidad. Con poco no.
Hay que tener mucha cantidad pero sí."

Badago itxaropena. Ahots gaztearen soinua bueltan, bere posizioa irmoki defendatuz. Kontrako ikuspuntu bat, eztabaida berri bat. Badago zer egiterik, nahi eta izatearen saiakerarik, etorkizuneko argirik. Atzetik, ardiak jeiztearen soinuak hartzen du grabagailuaren mikrofonoa. Esnearen xurgatzean, makina soinuen larrialdia. Ardiak pasarelara igo, jetzi, jeitsi. Soinuak geroz eta indar gehiago hartzen du, erritmo aldakor batean hartuz ardi batzuen eta besteen titiak. Atmosfera bat, tentsio bat, ustiapen bat. Ez da ahotsik entzuten. Isilik gaude, egitearen ozentasuna biltzen. Belaunaldi gazteko batzuen nahia da egotea, egitea. Logika berriak, aldarrikapen berriak. Mediazio eta konfigurazio berriak. Iraganeko moldeen mirespena, etorkizuneko erronkeekiko egokitzapena. Artzaintza tradizionalaren ingurugiroa traszenditzea, garaikidetzea, jasangarri egitea.

Hay esperanza. Vuelve la voz jóven, defendiendo su posición con firmeza. Un contrapunto, una nuevo debate. Hay posibilidades, formulas entre querer y el ser, aptitudes futuras. De fondo, el micrófono de la grabadora es invadido por el sonido del ordeño. La absorción de la leche, la urgencia sonora de la máquina. Suben las ovejas a la pasarela, son ordeñadas, son bajadas. El ambiente va cogiendo fuerza, captando a ritmos intercalados las ubres de unas y otras ovejas. Una atmosfera, una tensión, una explotación. Las voces ya no están. Estamos en silencio, recogiendo el volumen del hacer. Es el querer de una parte de la nueva generación; ese estar, ese hacer. Nuevas mediaciones, nuevas configuraciones. Admiración a los moldes del pasado, adaptación respecto a los desafíos del futuro. Trascendiendo, contemporaneizando, haciendo sostenible el entorno del pastoreo tradicional.

"Aquí no hay maquinaria, aquí por ejemplo es todo manual."

Artisautzaren eta industrialaren arteko talka. Iraganaren eta orainaldiaren arteko talka. Denaren eta izan nahi denaren arteko talka. Jeizteen arteko desberdintasuna nabari. Hotsek espazioa hartzen dute, berriz ere. Eskuen estutze mugimenduak, esnea metalezko ontzian sortzen duen kolpea. Erritmoa, kontaktua, kontzentrazioa.

Golpes entre lo artesanal e industrial. Golpes entre el pasado y el futuro. De lo que se es y lo que se quiere ser. Se denota una diferencia en el ordeño. Los sonidos se hacen con el espacio, de nuevo. El aprieto y movimeinto de las manos, el golpe de la leche en un cubo de metal. Ritmo, contacto, concentración. Una nuevo debate, entre

Eztabaida bat, zenaren eta izan daitekeenaren artean. Lehenaldiko formulen eta etorkizuneko sistematizazioaren artean. Egite eta egoteak. Talka bat, moduen artean, eboluzionatutako formulen artean. Desplazamendu bat, aukera desberdinen harremantzean.

lo que era, lo que es y lo que puede ser. Entre las formulas del pasado y la sistematización del futuro. Del hacer y del estar. Un choque entre modos, entre formas y evoluciones. Un desplazamiento, relaciónes entre diferentes posibilidades.

"No sabían muchas tampoco, no, no sabían todas. No creas, sí había pero no todas. Lo que pasa que ahora ya, los años hija, no pasan en balde, para nadie. Además cuánto he hilado yo, Jesús."

Iragana hizketa, atzera botazen dugu begirada. Gainbeheran dauden jarduteen helarazpena, artilearen iraganeko erabilkortasunaren trama. Izanaren eransketa, egungo izate eta egoteetan. Irutearen eskuzko igurtzea, betiko egitearen soinua. Eskuen mugimendua, etengabeko giltzaduretan. Bitartean, denbora arteko talka, belaunaldi arteko talka, artisautza eta industriaren arteko talka. Paralelismoak, oihartzun eta erresonantziak. Idealaren eta errealitatearen arteko talka, nahiaren eta ezin izatearen arteko talka.

El pasado nos habla, . Miramos hacia atrás. Hacia la utilidad de la lana, hacia la transmisión del declive de su hacer. De lo que fue, en el ser y el estar del ahora. La fricción del hilar, el sonido de lo secular. El movimiento de las manos, en sucesivas ataduras. Continua el debate entre lo inter-temporal, inter-generacional, artesanal e industrial. Paralelismos, ecos y resonancias. Entre lo ideal y lo real, entre lo que se quiere y lo que se es.

"Baserri mundua mantentzen da, nik uste dut gehiena, edo nire ondoan ikusten dudana, ardien munduan Karrantzan, maitasunagatik. Ze diru sarrerak ez dira oso handiak, eta, maite ez duenak uzten du."

Azkeneko ahotsa, sinismen handienaren ahotsa. Etorkizunaren ahotsa. Maitasuna. Maitasunaren boterea, erresistentzia, nahiaren eta ezinaren arteko eztabaidan.

La última voz, la voz de la creencia, la voz del futuro. El amar. El poder del amar, la resistencia, en la controversia del querer y no poder. Un amor cultural, en la continuación

Maitasun kultural bat, bizimoduaren mantenu formuletan. Nahiaren eta ezinaren, ezinaren eta izatearen arteko eztabaidan. Arnasguneak, balioen baitako biziraupenean. Izatea da egotea, egotea da izatea. Eztabaida sare baten eraikuntza, ustezko landa eremu sinbolikoaren desegituraketa. Arakatutako ondare ez-materialaren artikulazio proposamena, iraunkortasun posible baten sinergiak. Arkeologia sonoro bat, Karrantzako Haranean. Nahi eta ezinaren, nahi eta izatearen, eta izatez egotearen aldarrikapena.

de formulas vivenciales. Una lucha entre el querer y el no poder, entre no poder y el ser. Soplos de aire, en la supervivencia de ciertos valores. Ser es estar, estar es ser. Testimonios. Testimonios que quieren ser escuchados. La construcción de una red de controversias, en la desestructuración de imaginado mundo rural. Propuesta de articulación de su patrimonio inmaterial, sinergias para un posible sustento. Una arqueología sonora, en el valle de Carranza. Entre el querer y el no poder, el querer y el ser, proclamando que si se está, se es.

“BOBINAS OVINAS” (Ardi-bobinak)

(Ardi-bobinak 1-7) / Film negatiboa Super-8 Kodak Vision 200T, 24’, 18 fps, 1,48:1, isila, koloreduna.
“Bobinas ovinas 1-7” Película negativa Super-8 Kodak Vision 200T, 24’, 18 fps, 1,48:1, silente, color

(Artzaina gai zenean bere artaldearen anonimotasunean nolabaiteko hiezkortasuna antzemateko) / Bideo digitaleko artxiboa, 53’, 25 fps, 1,77:1, soinua, kolorea, film-zatietatik abiatuta muntatuta.“Cuando el pastor sabía reconocer cierta inmortalidad en el anonimato de su rebaño” / Archivo de video digital, 53’, 25 fps, 1,77:1, sonido, color, montaje a partir de fragmentos de películas

Zuri eta beltzean inprimatutako argazki handituak, Super-8 film negatiboko zerrendak eskaneatzaren bidez lortuak, dimentsio desberdineko formatu batzuk (700x84cm, 600x150cm, 400x42cm, 15x10cm). Ampliaciones impresas en blanco y negro a partir de escaneo de tiras de película negativa Super-8, varios formatos de distintas dimensiones (700x84cm, 600x150cm, 400x42cm, 15x10cm)

Bruno Delgado Ramo
brunodelgadoramo.com

- Bobina #1 (Lanzas Agudas)
Femia Mugika
Benjamín Mugika

- Bobina #2 (Ranero)
José Ángel dela Hoz Matxin
José Luis dela Hoz Galdós

- Bobina #3 (Ahedo)
Joseba Edesa Portillo
Neska
Ura
Bildur

- Bobina #4 (Trespalacio)
Xabier Mendizabal García
Victoriano García Herboso

- Bobina #5 (La Fuente del Oro)
Oskar Zulueta
Sua
Nube
Ikatz

- Bobina #6 (Ahedo y Sangrices)
Laurita Siles Ceballos
Joseba Edesa Portillo
Neska
Ura
Bildur
Encarna Rivas

- Bobina #7 (Cézura)
Izaskun Elechiguerra Gutiérrez
Jose Aguinagalde Elechiguerra
Marta Medina Macallo
Ángel Elechiguerra Altube
Patxi Elechiguerra Altube
Roque Elechiguerra Altube
Mari Begoña Gutiérrez Hernáiz
Luis Ángel Aguinagalde Elechiguerra
Onintza Etxebeste
Itxaso Díaz
Laurita Siles Ceballos
Joseba Edesa Portillo



Iluntzen ari du muino baten tontorrean. Behean haran bat dago. Argitasuna oso apala da ordurako. Paisaia anil-tonu berdinean agertzen da. Ia ez dago alde kontrastaturik. Lehenengo planoan zuhaitz baten enborra dago. Haren inguruan ardi multzo bat dago. Ardi batzuk oso hurbil daude eta beste batzuk urrunago. Astiro ibiltzen dira larrean, batetik bestera, eta noizean behin burua altxatzen dute, ingurumariak aztertuz. Artilearen litsak astindu egiten dira brisarekin. Handik urrun, haranaren ezkerreko muturretik, forma hegazkor zuri bat agertzen da. Mugitu egiten da, zutabe zuri bat sortuz ilunpe urdinean. Hirirako bidean harana zeharkatzen duen tren bat da. Iluntzen amaitu eta gaua etorri da. Ardiak ezin dira ia bereizi gaueko iluntasunean. Nola bazkatzen duten entzuten da, eta tarteka lokomotoraren txistukada. Aurreko eszena 1970 urtearen inguruan gertatzen da, Trás-os-Montes eskualdean; zentrotzat jo zitekeen leku orotatik urrundutako eskualde urrun bat da, eta hango jendeak lurrari lotuta bizitzea lortzen zuen artean ere, legeetatik urrun. Filma "Trás-os-Montes" deitzen da, eta Margarida Cordeiro eta António Reisek egin zuten. FEVEren Bilbo-Santander lineako tren bat hartu nuen La Concordia geltokian. Eguzkiaren azken izpiekin, tunel batetik irtetean, trena zuzenean barneratu zen Karrantza Haranean. Orduan pentsatu nuen goian deskribatu dudan sekuentzia une horretan bertan egon zitekeela gertatzen, kontrako noranzkoan. Han goian, Cézura edo Ahedoko larretan pilatutako ardi batzuek trenari begiratzen zioten, baina ez hirira zihoanari, hiritik zetorrenari baizik. Filmaren garaian, trenak aukera itxaropentsuekin konektatzen zuen (emigrazioarekin). Lokomotoraren txistukada itxaropen oihu bat zen, deprimitutako landa-eremu batetik irteten zela adierazten baitzuen. Gaur egun, badirudi kontuak

Atardece en lo alto de una colina. Abajo hay un valle. La luminosidad es ya muy baja. El paisaje se presenta en una misma tonalidad añil. Casi no hay partes contrastadas. En primer término está el tronco de un árbol. Alrededor de este hay un grupo de ovejas. Algunas están muy cerca y otras más lejos. Se desplazan parsimoniosamente por el prado y de cuando en cuando alzan la cabeza inspeccionando las inmediaciones. Los flecos de la lana oscilan con la brisa. A lo lejos y por el extremo izquierdo del valle aparece una forma volátil blanca. Se desplaza formando una columna blanca en la penumbra azul. Es un tren que cruza el valle en dirección a la ciudad. Termina de anochecer. A las ovejas prácticamente no se las distingue en la noche. Se escucha cómo apacientan y entrecortadamente el silbido de la locomotora. La escena anterior transcurre alrededor de 1970 en Trás-os-Montes, una región remota, alejada de cualquier lugar que pudiera considerarse centro y en la que sus gentes aún entonces lograban vivir arraigadas a la tierra y lejos de las leyes. La película se titula "Trás-os-Montes" y fue realizada por Margarida Cordeiro y António Reis. Tomé un tren FEVE Bilbao-Santander en la estación de la Concordia. Con los últimos rayos solares, al salir de un túnel el tren se adentró sin más preámbulo en el Valle de Karrantza. Pensé entonces que la secuencia que he descrito arriba bien podría estar ocurriendo en ese momento en sentido inverso. Allá arriba en los prados de Cézura o de Ahedo unas ovejas arremolinadas observaban en este caso la llegada, no la partida, del tren de la ciudad. En la época de la película el tren conectaba con la oportunidad (la emigración). El silbido de la locomotora era un grito de esperanza que marcaba la salida de una zona rural en depresión. Hoy parecen cambiar las

alderantziz jarri direla. Itxaropena sortzen duena, zalantzarik gabe, Haranera iristea da. Karrantzako geltokian jaitsi nintzen.

"II. Ondo Bizi Arte Egonaldirako" egiten nuen proposamenaren helburua zen zinemaren praktika esperimentala hurbiltzea (bai errealizaziotik eta bai proiekziotik) Karrantza Haranaren ingurune espezifikora, bertako mutur beltz ardiarengana eta berari lotutako bizimodura. Elkar sostengatzen zuten bi ekintza-ildo planteatu nituen. Alde batetik, film bat filmatzea zegoen, eta bestetik zinema-saio publiko bat programatzea Karrantza Haraneko bizilagunentzat. Saio horretan, ardien agerraldia duten film batzuen zatiak erakutsi

tornas. Lo esperanzador es sin duda la llegada al Valle. Me bajé en la estación de Carranza.

Mi propuesta para la "II Ondo Bizi Arte Egonaldia" intentaba acercar la práctica experimental del cine (tanto desde la realización como desde la proyección) al entorno específico del Valle de Karrantza, a la oveja carranzana de morro negro y a los modos de vida asociados a ella. Planteé dos vías de acción que se apoyaban una en la otra. Por un lado estaba la filmación de una película y por otro la programación de una sesión pública de cine pensada para los vecinos de Karrantza Harana. En esta sesión mostré fragmentos de algunas películas en los que aparecen

nituen. Zati horiek, gainera, Haraneko paisaiari gehitutako estratu bezala funtzionatzen dute. Filmazioaren asmoa zen zinemaren historiako ardiei nolabait erantzutea. Egonaldia amaitu eta bi hilabete geroago, beste bi egoiliarrekin batera –Onintza eta Itxaso- egingo zen erakusketa kolektiboaren kariaz, beste ekintza-ildo bat agertu zen. Ildo horren mamia izan zen filmatutako materialean esku hartzea, filmaren proiekzioa erakusketan sostengatzen zuten objektu-pieza batzuk garatzeko.

Filmazio prozesu horren emaitza "Bobinas ovinas 1-7" (Ardi-bobinak 1-7) izendatu dudan film bat izan da. Karrantzako erregistro multzo bat da, Super-8 filmean hartuta. Erregistro horien abiapuntuko asmoa zen Karrantzako ardien, naturaren, bizimoduaren eta mutur beltz ardiarekin lotutako lanen eraginpean jartzea, eta baita film-materialtasunaren eta zinemaren historiako oroitzapenen eraginpean ere. Super-8 formatuan filmatzeak materialtasunean errotutako prozesu batera iristea ahalbidetzen du; bertan, eskuzko harreman zuzena dago baliabide teknikoekin. Super-8 kamera makina arin eta eramangarri bat da, errealitatearekin "bertatik bertara" lan egitea errazten duena, hau da, inguratzen nauen mundu formalarekin lan egitea. Gustatzen zait pentsatzea filmatzeko modu hau baserriko bizimoduekin eta hango artisau-praktikekin lotzen dela gaur. Hain zuzen ere, behin eta berriz irudikatzen dut korrelatu bat eskuz irutearen eta Super-8ko bobinak biribilkatzearen erritmoaren artean. Nolabait, filma Karrantzara iritsi berri den norbaiten erreakzioa da, Super-8 kameraren bisore txikiaren bitartez azaldua. Haraneko motibo bisualak ikertzeak aurkikuntza batzuetara eraman ninduen. Horietako bat kolore zuria izan

ovejas. Estos fragmentos funcionan además como un estrato añadido al paisaje del Valle. La filmación tenía el ánimo de responder de alguna manera a las ovejas de la historia del cine. Dos meses después de la residencia, a propósito de la exposición colectiva junto a las otras dos residentes, Onintza e Itxaso, apareció otra vía de acción. Esta consistió en intervenir el material filmado para desarrollar una serie de piezas objetuales que apoyaban la proyección en sí de la película en la exposición.

El proceso de filmación ha dado lugar a una película que he titulado "Bobinas ovinas 1-7". Se conforma de una serie de registros en Karrantza en película Super-8. Estos registros partían del propósito de dejarse afectar por las ovejas carranzanas, la naturaleza, los modos de vida y los trabajos relacionados con la oveja cara negra, así como por la materialidad fílmica y las reminiscencias de la historia del cine. Filmar en Super-8 permite acceder a un proceso arraigado a lo material y en el que hay una relación manual y directa con los medios técnicos. La cámara de Super-8 es una máquina ligera y transportable, que facilita el trabajo "cuerpo a cuerpo" con la realidad, con el mundo formal que me rodea. Me gusta pensar que esta manera de filmar entronca hoy con los modos de vida rurales y sus prácticas artesanales. Precisamente imagino recurrentemente un correlato entre el hilado artesanal de la lana y el ritmo de enrollado de las bobinas de Super-8. De alguna manera la película es la reacción de un recién llegado a Karrantza a través del pequeño visor de la cámara de Super-8. La exploración de los motivos visuales del Valle me llevó a varios hallazgos. Uno de ellos fue el color blanco. La residencia tuvo lugar en abril de

zen. Egonaldia 2018ko apirilean izan zen. Garai hartan, gereziondo, madariondo eta elorriek euren loreen zuritasuna azaleratzen zuten. Kolore zuri hau uztartzen hasi zen beste zuri batzuekin: artilea, artzakurrena ilea, esnea, gazta eta ardiak eta artzainak euren zereginekin hasten ziren ordu txikietako ilargiaren zuria. Nire kameraren bisorearen bitartez, belarraren berdetik esnearen zurira zihoan mugimendu bat aurkitu nuen. Ardia berdearen eta zuriaren artean dago.

Filmatzen nuen bitartean, egiaztatu nuen Karrantzan bizirik dirauela filmatutako ardien historiaren irudi oso konkretu batek. Eraikin bateko atzetzar baten plano bat da, nahiko

2018. Durante la misma cerezos, perales y espinos dejaron ver el blanco de sus flores. Este blanco comenzó a compaginarse con el blanco de la lana, del pelo de los mastines, de la leche, del queso y de la luna aún visible en las horas tempranas en las que comienzan a faenar ovejas y pastores. A través del visor de mi cámara hallé un movimiento del verde de la hierba hacia el blanco de la leche. La oveja está entre el verde y el blanco.

Durante la filmación constaté la pervivencia en Karrantza de una imagen bien concreta de la historia de las ovejas filmadas. Se trata de un plano bastante frontal del portón de un edificio visto desde fuera. El portón se abre

frontala, kanpotik ikusia. Atzetzarra irekitzen da, eta barnetik ardiak irteten hasten dira. Artegiko irteerak une liturgiko garrantzitsua izaten jarraitzen du, ardiaren, pertsonen eta zinemaren arteko loturan. Une horretan egon behar nuen, eta bertan iraun. Historian erregistratutako lehenengo mugimenduzko irudiek ("Sortie d'usine", 1985eko maiatzaren 26a) eta ardiak agertzen diren lehenengo mugimenduzko irudiek ("Moutons entrant à l'abattoir", 1896ko irailaren 13a) paralelismo handia dute euren artean. Bai lehenak eta bai bigarrenak Louis eta Auguste Lumièrek egin zituzten. Bi erregistroen artean urte bakarra dago. Bi sekuentzietan indibiduo talde bat ikusten dugu (langileak kasu batean eta ardiak bestean) esparru batetik irteten (kasu batean lantegi batetik, eta artegi batetik bestean). Antzekotasun handia duten koreografiak dira. Halaber, bata zein bestea koreografia anonimoak dira. Gustatzen zait pentsatzea ez direla langileak artalde baten antza dutenak, baizik eta ardiak direla berez langile direnak.

Super-8 filmeko zazpi bobina filmatu nituen, nire Canon 814XLS kamerarekin, egonaldiak iraun zuen denboran. Bobina bakoitzak film nahikoa du hiru minutuz filmatzeko. Aldez aurretik, erabaki nuen bobina bakoitza kokagune batera eta denbora-tarte labur eta zehatz batera dedikatzea. Super-8ko bobina bakoitza Karrantza Haraneko auzo batean dago filmatuta, oso-osorik, dagozkion artalde eta artzainarekin (edo artzain-familiarekin). Muntaketa kameran egin nuen, errodatzen nuen bitartean. Kameran muntatzeak esan nahi du material fotosentikorra agerian uzten dela, horren ostean muntaketarik egingo ez dela jakitun egonda. Filmaren azkeneko muntaketan bobina bakoitzaren hartualdien iraupena eta

y del interior comienzan a salir ovejas. La salida del establo sigue siendo un momento litúrgico relevante en la relación entre la oveja, las personas y el cine. Es un instante al que tenía que asistir y en el que perseverar. Las primeras imágenes en movimiento registradas en la historia ("Sortie d'usine", 26 de mayo de 1895) y las primeras imágenes en movimiento en las que aparecen ovejas ("Moutons entrant à l'abattoir", 13 de septiembre de 1896) tienen muchos paralelismos. Tanto unas como otras fueron realizadas por Louis y Auguste Lumière. Entre un registro y otro solo hay un año. En ambas secuencias vemos a un grupo de individuos (obreros en una y ovejas en otro) salir de un recinto (de una fábrica en un caso y de un establo en el otro). Es una coreografía muy similar. Es una coreografía igualmente anónima. Me gusta pensar que no son los obreros los que parecen un rebaño sino las ovejas las que son obreras y operarias.

Filmé siete carretes de película Super-8 con mi cámara Canon 814XLS durante la residencia. Cada carrete tiene película suficiente para tres minutos de filmación. Tomé la decisión a priori de dedicar cada carrete a una localización y a un periodo de tiempo corto y delimitado. Cada carrete de Super-8 está filmado íntegramente en un barrio de Karrantza Harana, con el rebaño y el pastor (o familia pastora) correspondientes. Realicé el montaje en cámara, durante el rodaje. El montaje en cámara consiste en exponer el material fotosensible a sabiendas de que no se llevará a cabo montaje a posteriori. En el montaje final de la película he respetado la duración y el orden originales de las tomas de cada carrete. De esta manera la película da muestra de esta

ordena errespetatu ditut. Era horretan, filmak erakusten du filmazio-lekuei lotutako egitura hori. Filma hiruna minutuko (bobina baten iraupena) zazpi blokez osatuta dago; bloke horien artean, lausotutako film-zati txikiak (zuriak) edo azaleratu gabeak (beltzak) daude tartekatuta. Filmatu nuen metraje osoa azkeneko filmean dago. Bobinak errebelatu ondoren erabaki nuen haien ordena. Hori da gerora egin dudan muntaketa bakarra.

Zinema-saioa film-zati batzuen proiekzioa izan zen, nire iruzkinak tartekatuta. Ardiak agertzen diren filmetako zatiak dira. Zatien aukeraketaren asmoa ez da ardien agerpenen osotasuna erakustea. Izan ere, saiatu naizena da

estructura asociada a los lugares de filmación. Está conformada de siete bloques de tres minutos cada uno (la duración de un carrete) separados por pequeños tramos de película velada (blanca) o no expuesta (negra). Todo el metraje que filmé está en la película final. Decidí el orden de los carretes una vez revelados. Este es el único montaje posterior que he realizado.

La sesión de cine consistió en una proyección de fragmentos de películas con mis comentarios intercalados. Son fragmentos de películas en las que aparecen ovejas. La selección de fragmentos no busca mostrar la integridad de las apariciones de la oveja. Con

zinemaren praktika esperimental konkretu bati erantzuten, eta erreferente gisa funtzionatzen duten eta funtzionatu duten film klasiko multzo bati ere erantzuten. Lehenengoa zen helburu nagusia, hau da, ekoizpen handietatik kanpo eta artisau-moduan egindako film esperimentalak erakustea. Film horietan, pertsona batek modu indibidualean erantzuten dio errealitateari bere kamerarekin. Horixe erakutsi nahi nuen. Halaber, aukeraketa hau zinemaren historiatik egindako ibilbide bat da: 1896tik 2018ra. Jarraian, tituluen aukeraketa ikus daiteke. Prozesu horretatik, oraindik ere egiteko bidean dagoen ikus-entzunezko saiakera bat etorri da: "Cuando el pastor sabía reconocer cierta inmortalidad en el anonimato de su rebaño" (Artzaina gai zenean bere artaldearen anonimotasunean nolabaiteko hilezkortasuna antzemateko).

> "[…] (beti gogoratuko du gizon bat baserri bateko atearen kontra bermatuta, udako arratsaldeen ordu neutro eta alfer horretan, eguneko lan guztiak amaituta eguzkia bera ere gainean atsedena hartzen bide duenean, masaila hesi-horma baten gainean jarrita, zentzugabekeriaren sasoi neketsu hura, ez gogoetatsua ez mindutakoa ez zen sasoi hura, gogora ekartzeko bere baketasunarekin, sasoi hartan artzaina gai baitzen bere artaldearen anonimotasunean nolabaiteko hilezkortasuna antzemateko)[…]"
> (Un viaje de invierno, Juan Benet, Cátedra: Madril, 201. orrialdea)

esta selección intento más bien responder a una práctica experimental concreta del cine y a una serie de películas clásicas que funcionan y han funcionado como referentes. Se trataba ante todo de lo primero, de mostrar películas experimentales hechas de manera artesanal e independientes a las grandes producciones. Quería mostrar películas en las que una persona responde individualmente a la realidad con su cámara. Esta selección es también un recorrido alternativo por la historia del cine: desde 1896 hasta 2018. A continuación se reproduce la selección de títulos. Este proceso ha dado lugar a un ensayo audiovisual aún en proceso titulado "Cuando el pastor sabía reconocer cierta inmortalidad en el anonimato de su rebaño".

> "[…] (recordará siempre a un hombre apostado a la puerta de una granja, en esa hora neutra y ociosa de la tarde del verano en la que, concluidos todos los trabajos diurnos, hasta el sol parece recostar su mejilla sobre una tapia para evocar la pacífica condición de una era laboriosa, pero no reflexiva ni dolida de la sinrazón, cuando el pastor sabía reconocer cierta inmortalidad en el anonimato de su rebaño) […]"
> (Un viaje de invierno, Juan Benet, Cátedra : Madrid, pág. 301)

ARDIAK ZINEMAN IZANDAKO AGERPENEN GENEALOGIA PERTSONALA

GENEALOGÍA PERSONAL DE LA OVEJA EN EL CINE

1896 - *Moutons entrant à l'abattoir* (Vue no.61) / Louis Lumière, Auguste Lumière
1896 - *Labourage* (Vue no.59) / Louis Lumière, Auguste Lumière
1900 - *Moutons* / Parnaland
1931 - *Mor vran* / Jean Epstein
1938 - *The Farm* / Humphrey Jennings
1942 - *Home on the Range* / U.S. Department of Agriculture, Agricultural Adjustment Agency
1952 - *The Quiet Man* / John Ford
1954 - *Sheep* / Prelinger Archive
s.d. - *Black Sheep* / Universal-International Newsreel, Prelinger Archives
s.d. - *California and San Francisco* / Home movie, Prelinger Archives
1955 - *Orgullo* / Manuel Mur Oti
1963 - *Acto da primavera* / Manoel de Oliveira
1966 - *Au Hasard Balthaza*r / Robert Bresson
1969 - *Sayat Nova* / Sergei Paradjanov
1970 - *Rebaño y familia Ramo Herrero en Navarra* / Máximo Ramo Guitarte
1973 - *Moses und Aron* / Danièle Huillet y Jean–Marie Straub
1973 - *Horizons* (Elective Affinities, Part 1) / Larry Gottheim
1972 - *La cicatrice intérieure* / Philippe Garrel
1974 - *Jaime* / Margarida Cordeiro y António Reis
1975 - *Vremena goda* / Artavazd Peleshian
1976 - *Trás-os-montes* / Margarida Cordeiro, António Reis
1977 - *Valse Triste* / Bruce Conner
1982 - *Passion* / Jean–Luc Godard
1983 - *Euskadi été 1982* / Otar Iossellani
1984 - *Ambavi Suramis tsikhitsa* / Sergei Parajanov y Dobo Abashidze
1988 - *Schafschur* / Helga Fanderl
1988 - *Schafe am Teich* / Helga Fanderl
1995 - *Deseret* / James Benning
1997 - *Tren de sombras* / José Luis Guerín
1999 - *Le Vent de la nuit* / Philippe Garrel
2005 - *Bouquet 12* - Farm de la Mhotte, Saint Menoux, Allier / Rose Lowder
2005 - *Herdentiere* / Milena Gierke
2008 - *A Walk* / Ute Aurand
2016 - *For Christian* / Luke Fowler
2017 - *Esmeralda* [Lus] / Bruno Delgado Ramo
2018 - *A Return* / James Edmonds

Antolakuntza/ Organización
Mutur Beltz sustatzeko elkarte agroekologikoa, artistikoa eta kulturala
Mutur Beltz, asociación agroecológica, artística y cultural para promover la oveja carranzana cara negra

Laguntza/ Colaboración
Avascane
Karrantzako Udala
Enkartur
Bizkaia Foru Aldundia
Eremuak, Eusko Jaurlaritza

Diseinu eta maketazioa/ Diseño y maquetación
Laurita Siles
Onintza Etxebeste Liras

Testuak/ Textos
Arantza Lauzirika
Itxaso Díaz
Onintza Etxebeste Liras
Bruno Delgado Ramo
Mutur Beltz Elkartea (Laura Siles Ceballos y Joseba Andoni Edesa Portillo)

Argazkiak/ Fotografías
Itxaso Díaz
Onintza Etxebeste Liras
Bruno Delgado Ramo
Mutur Beltz Elkartea

Itzulpena/Traducción
Koldo Morales

Inprenta/ Imprenta
Grafilur

Legezko gordailua/ Deposito legal
BI-1968-2018

ISBN
13-978-84-09-07178-4

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/
Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».